1.5. Oinarrizko antolamendu-egitura

Hauek dira Badalaben gobernu-organoak:

- Partzuergoaren gobernu organoa Gobernu Batzordea da, ondoko osaera duena:
 - Lurralde administrazio publikoak: 5 ordezkari
 - Euskararen gizarte erakundeak: 5 ordezkari
 - Aliatutako eragileak eta erakundeak: 5 ordezkari.
- Partzuergoaren administrazio organoak Batzorde Betearazlea eta Zuzendaritza Nagusia dira.
- Partzuergoaren ordezkartza organoa Presidentetza da.
- Partzuergoaren deliberazio organoa Deliberazio Foroa da.

1.6. Batezbesteko langile kopurua ekitaldian eta abenduaren 31n

2021		
	Emakumeak	Gizonak
Langileak	1	-

2021ko abenduaren 31n, langile bakarra zuen: Zuzendari nagusia.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1 Irudi leiala

Urteko kontu hauek egiteko, bere kontabilitateko erregistroak erabili ditu erakundeak. Kontuak egiteko, abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kontabilitate Publikoko Plana onartu zuenean, jasoriko kontabilitate printzipioak eta balioztapen irizpideak erabili dira (4/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, bere 116. artikuluan ezartzen duen bezala). Era berean, kontabilitatearen arloan indarrean diren gainerako lege xedapenak ere aplikatu dira. Kontu hauek Partzuergoaren ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi leiala eskaintzen dute. Partzuergoko Gobernu Batzordeak onartu behar ditu kontuak, eta pentsatzen dugu inongo aldaketarik gabe onartuko direla.

Ez dago salbuespenezko arrazoirik irudi leiala eskaintzeko eta kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko.

2.2 Informazioa konparatzea

Ez da aurreko ekitaldiko kontuekin alderatzeko aukerarik, 2021 urtean sortu den erakundea den neurrian.

2.3 Akatsak zuzentzea

2021eko ekitaldiko urteko kontuetan ez da aurreko ekitaldietan izaniko kontabilitateko akatsen ondorioz eginiko inongo doikuntzarik.

2.4 Aldaketak kontabilitateko irizpideetan

2021eko ekitaldian lehen aldiz aplikatu dira kontabilitateko irizpideak.

2.5 Kudeaketa jarraitua

Erakundeak kudeaketa jarraituaren printzipioarekin egin ditu 2021ko ekitaldiko urteko kontu

3. AINZATESPEN – ETA BALIOESPEN-ARAUAK

Ekitaldi honi dagozkion urteko kontuak egiteko Partzuergoak erabili dituen aintzatespen-eta balioespen arau nagusiak hauek dira, Kontabilitate Publikoko Planean ezarritakoaren arabera:

3.1 Ibilgetu materiala

Erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen da. Barnean sartzen dira, prezioaren deskontuak edo beherapenak kendu ondoren fakturatu den zenbatekoaz gain, funtzionatzen jarri arte gertatzen diren gainerako gastu guztiak, zuzenean lotuta daudenak, esaterako, lur berdinketa eta eraisketa gastuak, garraioa, aseguruak, instalazioa, muntaketa eta antzeko beste batzuk.

Ibilgetu material batzuek urtebete baino gehiago behar dute erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egoteko, eta horien kostuaren barnean, Partzuergoak zenbait finantza gastu sartzen ditu, hain zuzen ere, erosteko, eraikitzeko edo ekoizteko egotz daitekeen berariazko finantzaketa edo finantzaketa orokorra.

Partzuergoak irizten du aktiboen kontabilitate balio garbiak ez duela gainditzen aktibo horien balio berreskuragarria.

Ibilgetu materialaren elementu baten balioaren hondatze galera gertatzen da, haren kontabilitate balio garbiak haren balio berreskuragarria gainditzen duenean. Balio berreskuragarria hauxe da: arrazoizko balioari salmenta kostuak kendu ostean lortutako zenbatekoaren eta erabilera balioaren artean izan daitekeen zenbatekorik handiena.

Elementuak funtzionatzeko moduan dauden unetik, elementu horien amortizazioa sistematikoki egiten da haien bizi erabilgarri estimatuan, eta, era berean, haien hondar balioa baliogabea dela kalkulatu da. Lursailak ez dira amortizatzen, haien bizi erabilgarria zehaztugabea delako. Konponketa lan handiak gisa zehazturiko zenbatekoa ez da gainerako elementua bezala amortizatzen, konponketa horiek egin arteko aldiak.

3.2 Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina erosketa kostuaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen da hasieran; eta, ondoren, honela balioztatzen da: haren kostua ken amortizazio metatua eta/edo erregistratutako narriatzeagatiko zuzenketa zenbatekoa.

Aktibo ukiezinak balio bizitza zehatza duten aktiboak dira, eta, beraz, sistematikoki amortizatzen dira, horietarako zenbatetsitako balio bizitzaren beren hondar balioaren arabera. Aplikaturiko amortizatzeko metodoak eta aldiak berrikusi egiten dira ekitaldia ixten den bakoitzean, eta, hala badagokio, geroko ikuspegiarekin doitzen dira.

Ekitaldiaren itxieran behintzat, narriadura zantzurik ba ote dagoen aztertzen da; hala bada, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatesten dira, eta egoki irizten diren balorazio zuzenketak egiten dira. Aktibo hauen balio bizitza ezin denean modu fidagarrian zenbatetsi, hamar urteko epean amortizatuko dira; edonola ere, bete egingo dira ibilgetu ukiezinarentzat arau partikularretan ezarritako epeak.

Partzuergoak kontabilitatean aitortuko du narriadura dela eta aktibo horien erregistratutako balioan izan daitekeen galera oro. Horren kontrapartida gisa, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuko "balio-narriadura" epigrafea erabiltzen da. Aktibo hauen narriaduratik sortutako galerak aitortzeko irizpideak, eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistraturiko narriaduratik sortutako galeren ondorioak aitortzeko irizpideak, aktibo materialen kasuan aplikaturikoen antzekoak dira. Ekitaldi honetan ez dira aitortu aktibo ukiezinetatik eratorritako "balio-narriadura".

Ibilgetu ukiezin batzuek urtebete baino gehiago behar dute erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan egoteko, eta horien kostuaren barnean, Partzuergoak zenbait finantza gastu sartzen ditu, hain zuzen ere, erosteko, eraikitzeko edo ekoizteko egotz daitezkeen berariazko finantzaketa edo finantzaketa orokorra.

Jabetza industrial, patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak

Jabetza industrial balioztatzeko, hauek hartzen dira kontuan: jabetza industrial horren alderdi desberdinen jabetza eskuratzeko edota horien erabilera eskubidea edo erabileraren emakida eskubidea eskuratzeko eginiko gastuak, baldin eta, kontratuari atxikiriko baldintza ekonomikoak direla-eta, enpresa eskuratzaileraren inbentarioa egitera behartuta badago.

Besteak beste, hauek sartzen dira: asmakuntza patenteak, erabilgarritasun ereduak babesteko ziurtagiriak, industria diseinua eta ekoizpen patenteak.

Jabetza industrialaren eskubideak erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen dira, barnean sartuz dagokion patentea edo antzekoa eskuratzen den unean aktibatzen diren garapen gastuen liburu balioa, jabetza industrial erregistratzeko eta formalizatzeko kostua barne. Amortizatu egiten dira eta narriatzeagatik balorazio zuzenketa egiten zaie.

Informatika aplikazioak

Erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioztatzen dira, eta epigrafe honetan jasotzen dira web orriak egiteko gastuak (beti ere, horiek zenbait urtetan erabiltzea aurreikusten bada). Ekitaldi honetan ez da atal honetan gasturik eman.

3.3 Finantza tresnak: aktibo finantzarioak

Aitortzea, balioztatzea eta sailkapena

Orokorrean, erosten direnean aitortzen dira egoera balantzean, eta, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, barnean sartuz orokorrean eragiketa kostuak.

Maileguak eta kobratzeko kontuak:

Eragiketa komertzialek (bezeroak eta hainbat zordun) edo ez-komertzialek (hirugarren batzuentzako kredituak) sor ditzakete hauek. Amortizatutako kostuaren arabera erregistratzen dira, entregatutako eskudiruarekin bat etorriz, betiere egindako printzipalaren itzulketak kenduta eta kobratu ez diren sortutako interesak gehituta, maileguen kasuan.

Kobratzeko kontuen kasuan, aldiz, emandako ordainaren uneko balioa erregistratzen da.

Dagozkion hornidurak erregistratzen dira, kobratzeko kontuetatik berreskuratze dagoen zenbatekoaren eta horiek erregistratzerakoan dagoen liburu balioaren arteko alde dela-eta.

Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk:

Epigrafe honetan erregistratzen dira kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta kutxan azkar egin daitezkeen eta balioan aldaketarik izateko arriskurik ez duten likidezia handiko eta epe laburreko bestelako inbertsioak.

Aktibo finantzarioen baja

Aktibo finantzarioei baja ematen zaie iraungitzen direnean edo eskudiru fluxuen gaineko kontratu eskubideak beste bati lagatzen zaizkionean. Beharrezkoa da aktiboen jabetzari dagozkion arriskuak eta onurak neurri handi batean eskualdatu izana.

Baja ematean honela zehaztuko du irabazia edo galera, berori gertatzen den ekitaldiaren emaitzan egotz daitezkeen transakzio kostuen jasotako kontraprestazio garbiaren (kontuan hartuz eskuraturiko edozein aktibo berri ken onarturiko edozein pasibo) eta aktibo finantzarioaren liburu balioaren arteko aldea, gehi ondare garbian zuzenean aitortu den pilatutako edozein kopuru.

Aitzitik, ez zaie baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren araberrako pasibo finantzarioa onartzen da, bere jabetzak berezko dituen arrisku eta onurak neurri handi batean atxikitzen dituzten aktibo finantzarioen lagapenetan, hala nola efektuen deskontuan, helegitedun factoringean, edo berrerosteko ituna duten salmentetan.

3.4 Finantza tresnak: pasibo finantzarioak

Finantza tresnak pasibo finantzario gisa sailkatzen dira, beti ere enpresarentzat eskudirua edo beste aktibo finantzario bat entregatzeko kontratu obligazioa badakarte.

Pasibo finantzario nagusiak beren arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasieran (transakzioaren prezioa edo jasoriko eskudirua), eta gero kostu amortizatuaren arabera balioztatzen dira. Galera-irabazien kontuan aitortuko dira sortutako interesak, interes tasa eraginkorren arabera.

Pasibo finantzario baten baja ematen da obligazioa iraungi denean. Liburu balioaren eta

ordaindutako kontraprestazioaren arteko desberdintasuna ekitaldiko galera-irabazien kontuan aitortzen da; kontraprestazioan sartuko dira transakzioari egotz dakizkiokeen kostuak.

3.5 Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira, haietatik eratorritako moneta edo finantza korrontea noiz gertatzen den kontuan hartu gabe.

Edonola ere, ekitaldiaren itxiera datan dauden mozkinak kontabilizatzen dira soilik. Bitartean, aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, balizkoak badira ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Ondasunak edo zerbitzuak saltzearen ondoriozko diru sarrerak horietatik eratorrita jaso den edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira. Azkar ordaintzeagatiko edo bolumenagatiko deskontuak edo bestelako deskontuak, baita kredituen nominalean gehitutako interesak ere, horien minorazio gisa erregistratzen dira. Hala eta guztiz ere, kreditu komertzialei erantsitako interesak sartzen dira, epemuga urtebetekoa edo gutxiagokoa denean eta kontratuzko interes tasarik ez dutenean, diru fluxuak ez eguneratzeak garrantzi handirik ez badu.

3.6 Transferentziak eta dirulaguntzak

Itzuli behar ez diren kapitaleko diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arabera balioztatzen dira. Hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru sarrera gisa aitortzen dira, eta galera-irabazien kontuan sartzen dira, dirulaguntza horiekin finantzaturiko aktiboek aldi horretan izaten duten balio galeraren proportzio berean. Salbuespena da baliorik galtzen ez duten aktiboak izatea; kasu horretan, aktibo horiek besterentzen diren ekitaldian edo inbentarioan baja ematen zaien ekitaldian egozten dira emaitzan.

Dirulaguntza itzulgarriak direnean, dirulaguntza bihur daitezkeen epe luzeko zor gisa kontabilizatzen dira.

Berariazko gastuak finantzatzeko emaniko dirulaguntzak diru sarrera gisa egozten dira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian

4. AKTIBO FINANTZARIOAK

“Epe luzeko beste inbertsio finantzario batzuk”; Torrekuako behin behineko espazioaren alokairua gauzatu ahal izateko, 161,60€ko fidantza. Fidantza hau indarrean egongo da Badalaben behin betiko egoitzaren egokitzen amaitu eta bertako jarduna abiatu bitartean.

5. PASIBO FINANTZARIOAK

Epe motzeko pasibo finantzarioak honakoak dira:

Kontzeptua	2021
Administrazio Publikoak	
<i>Gizarte Segurantzza</i>	1.536,46
Ogasun Publikoa hartzekoduna (PFEZ)	1.8557,21
Beste kontu batzuk	139,51
GUZTIRA	3.533,18

6. TRANSFERENTZIAK, DIRULAGUNTZAK ETA BESTE DIRU-SARRERA ETA GASTU BATZUK.

Diru sarrera eta gastuen xehetasunak:

	2021
Saldoa ekitaldiaren hasieran	0
(+) <i>Igoerak ustiapeneko diru-laguntzengatik</i>	35.233,29
(-) <i>Galeren eta irabazien kontuan egotzitako gastuak</i>	27.549,16
Saldoa ekitaldiaren itxieran	7.684,13

- **Ekitaldian jasotako diru-laguntzak.**

Erakundea	Administrazioa	Mota	Zenbatekoa
Gipuzkoako Foru Aldundia	Probintziala	Ustiapena	35.233,29
Gipuzkoako Foru Aldundia	Probintziala	Inbertsioak	67.800,00

7. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Partzuergoak burutzen duen jardueragatik, ez du ingurumen-izaerako erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik ezta kontingentziarik ere, erakundearen ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragin nabarmena izan lezakeenik. Hori dela eta, urteko kontuen memorian ingurumenari lotutako berariazko xehakapenak jaso gabe daude.

Partzuergoak ez dauka berotegi efektuko gasak isurtzeko baimenik. Hori dela eta, urteko kontuetan ez dago zer sarturik gas horiek isurtzeko baimenekin lotutako partidei eta xehakapenei lotuta, Erregistroen eta Notarioen Zuzendaritza Nagusiak 2010eko apirilaren 6an erabakitakoari jarraikiz, hots, memoriari "berotegi efektuko gasak irtzeko eskubideei buruzko informazioa" erantsi behar zaiola.

8. AURREKONTUZKOAK EZ DIREN ERAGIKETAK

Torrekua espazioko alokairua gauzatu ahal izateko 161,60 euroko fidantza eratu da.

9. ADMINISTRAZIO – KONTRATUAK. ESLEIPEN PROZEDURAK:

KONTRATU ADMINISTRATIBOAK 2021	
1. PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITUTAKO KONTRATUAK ▪ 2021-001 espediente: Egoitza nagusirako ikus-entzunezko ekipamenduaren hornidura eta instalazioa. Lizitazio prozesua irekita dago.	

KONTRATU TXIKIAK			
ESPEDIENTEA	XEDEA	ESLEIPENDUNA	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA
2021-001	Lehendakariaren sinadura digitala	Izenpe S.A	72,10
2021-002	Torrekua eraikinean zuzendariarentzat toki baten alokairua.	Oarsoaldea S.A	325,90
2021-003	Torrekuarako erantzukizun zibileko aseguruia	Correduria de seguros Alkora EBS	67,11
2021-004	Zuzendari nagusiaren kontratazioa	ieTeam Consultores S.L	7.260,00
2021-005	Zuzendari nagusiaren kontrataziorako prentsa iragarkiak	ieTeam Consultores S.L	1.336,08
2021-006	Lege aholkularitza zerbitzua	Bider ü professional union S.L	5.808,00
2021-007	Asteko babesletza Egunean Behin aplikazioan	Codesyntax	1.210,00
GUZTIRA:			16.079,19

10. AURREKONTU - INFORMAZIOA

2021eko uztailaren 21ean Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Gobernu Batzordeak egindako eratzte-bilkuran 2021eko ekitaldiari dagokion aurrekontua onartu du.

10.1 Ekitaldiko aurrekontua

- Gastuen aurrekontua

KAPITULUA / CAPÍTULO	HAS. AURREK. / PPTO. INICIAL	EKIT. ALDAK. / MODIF. EJERC.	B. BETIK. AURREK. / PPTO. DEF.	ONART. OBL. / OBLIG. REC.	ORDAINKETAK / PAGOS
1. LANGILERIAREN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL	13.003,29	0,00	13.003,29	6.278,01	6.278,01
2. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO OHIKO GASTUAK / GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	22.230,00	-13,53	22.216,47	21.257,62	21.257,62
3. FINANTZA GASTUAK / GASTOS FINANCIEROS	0,00	13,53	13,53	13,53	13,53
4. OHIKO DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. KONTINGENTZIARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA / FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. INBERTSIO ERREALAK / INVERSIONES REALES	67.800,00	0,00	67.800,00	0,00	0,00
7. KAPITAL DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8. FINANTZA AKTIBOAK / ACTIVOS FINANCIEROS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. FINANTZA PASIBOAK / PASIVOS FINANCIEROS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA / TOTAL	103.033,29	0,00	103.033,29	27.549,16	27.549,16

Azterketa kapituluz kapitulu:

- I. Kapitulu**

Pertsonal gastuak	2021		
	B. BETIK. AURREK	ONART. OBL	Exekuzio maila
<i>Soldata eta ordainsariak</i>	10.000	5.000	%50,00
<i>Karga sozialak</i>			
<i>Enpresaren konturako</i>			
<i>Gizarte Segurantzak</i>	2.987,01	1.278,01	%42,78
<i>Pentsioetarako ekarpenak</i>			
<i>eta zuzkidurak</i>	16,28	0,00	%0,00
GUZTIRA:	13.003,29	6.278,01	%48,28

Langileen gastuei buruzko 1. Kapituluari dagokionez, lanpostu zerrendan aurreikusitako pertsonaren kontratazioa burutu da. Abenduan gauzatu da Zuzendari nagusiaren kontratazioa, aurreikusitakoarekin alderatuz, hilabeteko atzerapena egon delarik. 2021ean, langileen arloan 6.278,01 euroko gastua egin da, hots, gastu osoaren %22,8a.

- II. Kapitulu**

Gastu arruntak	2021		
	B. BETIK. AURREK	ONART. OBL	Exekuzio maila
Errentamenduak eta kanonak	1.200,00	325,90	%27,16
Materiala, hornigaiak eta bestelakoak	19.530,00	18.792,81	%96,23
Zerbitzu arrazoiengatik ematen diren kalte-ordainak	1.500,00	2.138,91	%142,60
GUZTIRA:	22.230	21.257,62	%95,63

II.KAPITULUA. Gastu arruntak		2021		
Kontu-saila	Xehetasunak	ONART. OBL	% gastu arruntekiko	% gastu osoarekiko
1.201.00.2021	<i>Eraikinak eta bestelako eraikuntzak</i>	325,90	%1,53	%1,18
1.224.05.2021	<i>Erantzukizun zibila</i>	67,11	%0,32	%0,24
1.226.07.2021	<i>Oposizioak eta hautapen probak</i>	8.596,08	%40,44	%31,21
1.227.01.2021	<i>Azterlanak eta irizpenak</i>	5.808	%27,32	%21,08
1.227.99.2021	<i>Beste lanak</i>	4.321,62	%20,33	%15,68
1.230.01.2021	<i>Dietak eta lokomozioa</i>	2.138,91	%10,06	%7,76
	GUZTIRA:	21.257,62	%100	%77,16

Gastu arruntei dagokionez, nagusiki bideratu dira Partzuergoa abian jartzeko zereginekin, hau da, Zuzendari Nagusia kontratatzea, lege aholkularitza zerbitzua eta behin behineko egoitzaren alokairua.

1.226.07.2021 da partidarik garrantzitsuena, 8.596,08 eurokoa. Barne biltzen ditu Zuzendari Nagusiaren kontratazioarako ieTeam-ek egindako lana eta prentsan argitaratutako iragarkiak. Partida honi dagokio 2021 urteko gastuaren %31,21a. Hurrengo partidarik garrantzitsuena 1.227.01.2021 da, 5.808 eurokoa, osotasunean lege aholkularitza kontratatzeke erabilitakoa. Honi dagokio gastuaren %21,08a.

- **III. Kapitulua**

2021 urtean **13,53 euroko finantza-gastuak** egon dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak ekarpena garaiz egin du, hortaz, diruzaintzako tentsio aipagarririk ez da egon.

- **VI. Kapitulua**

Inbertsioak		2021			
Kontu-saila	Xehetasunak	HAS. AURREK	EKIT. ALDAK.	B. BETIK. AURREK	Gastuaren egoera
1.624.00.2021	<i>Irudia igorri eta erreproduzitzeko ekipoak</i>	28.000,00	+39.000,00	67.000,00	Baimenduta
1.640.00.2021	<i>Altzariak</i>	39.800,00	-39.000,00	800,00	
	GUZTIRA:	67.800,00	0,00	67.800,00	

Inbertsioekin lotuta, 67.800€ko aurrekontua zegoen aurreikusita. 1.624.00.2021 kontu sailean 28.000€, Partzuergoaren behin betiko egoitzarako irudia eta soinua igorri eta erreproduzitzeko ekipoetarako, eta 1.640.00.2021 kontu sailean 39.800€, egoitzarako altzari horniketarako. Azaroan, Badalaben Gobernu Batzordeak 1.624.00.2021 kontu saila 39.000€tan handitu zuen, 1.640.00.2021 kontu sailaren kargura.

Saio berean onartu zuen ikus-entzunezko ekipamenduaren hornidurarako kontratazio espedientea, 57.000 eurokoa (BEZ barne). Gastua ez zen 2021 urtean exekutatu, konpromisoa 2022 urtera igaro delarik.

- **Sarrerren aurrekontua**

KAPITULUA / CAPÍTULO	HAS. AURREK. / PPTO. INICIAL	EKIT. ALDAK. / MODIF. EJERC.	B. BETIK. AURREK. / PPTO. DEF.	ONART. ESK. / DCHOS. REC.	BILDUTAKOA / RECAUD.
1. ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK / TASAS Y OTROS INGRESOS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. OHIKO DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CORRIENTES	35.233,29	0,00	35.233,29	35.233,29	35.233,29
5. ONDARE SARRERAK / INGRESOS PATRIMONIALES	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA / ENAJENACIÓN DE INVERSIONES REALES	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. KAPITAL DIRULAGUNTZAK ETA TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE CAPITAL	67.800,00	0,00	67.800,00	67.800,00	67.800,00
8. FINANTZA AKTIBOAK / ACTIVOS FINANCIEROS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. FINANTZA PASIBOAK / PASIVOS FINANCIEROS	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA / TOTAL	103.033,29	0,00	103.033,29	103.033,29	103.033,29

PARTIDA	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	ONARTUTAKO ESKUBIDEAK
1.460.00.2021	35.233,29	35.233,29
1.720.00.2021	67.800,00	67.800,00
GUZTIRA:	103.033,29	103.033,29

- **Aurrekontu emaitza**

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	ESKUBIDE ONARTU GARBIAK / DERECHOS RECONOCIDOS NETOS	OBLIGAZIO ONARTU GARBIAK / OBLIGACIONES RECONOCIDAS NETAS	AURREKONTUAREN EMAITZA / RESULTADO PRESUPUESTARIO
a. Eragiketa korronteak / Operaciones corrientes	35.233,29	27.549,16	7.684,13
b. Kapitalaren eragiketak / Operaciones de capital	67.800,00	0,00	67.800,00
1.- Eragiketa ez-finantzarioak, guztira / Total Operaciones no financieras (a + b)	103.033,29	27.549,16	75.484,13
c. Aktibo finantzarioak / Activos financieros	0,00	0,00	0,00
d. Pasibo finantzarioak / Pasivos financieros	0,00	0,00	0,00
2.- Eragiketa ez-finantzarioak, guztira / Total Operaciones no financieras (c + d)	0,00	0,00	0,00
I. EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA / RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO (1+2)	103.033,29	27.549,16	75.484,13
Doikuntzak / Ajustes:			
3. Kreditu gastatuak, diruzaintza gerakin lotugabearen bidez finantzatuak / Créditos gastados financiados con Remanente de tesorería para gastos generales			0,00
4. Ekitaldiko finantza desbideratze positiboak / Desviaciones de financiación negativas del ejercicio			0,00
5. Ekitaldiko finantza desbideratze negatiboak / Desviaciones de financiación positivas del ejercicio			0,00
II. DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES (3+4+5)			0,00
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA DOITUA / RESULTADO PRESUPUESTARIO DEL EJERCICIO AJUSTADO (I+II)			75.484,13
EMAITZA EKITALDI ITXIETAKO ERAGIKETEN ARABERA / RESULTADO POR OPERACIONES DE EJERCICIOS CERRADOS			
1. Eskubide deuzestatuak, guztira / Total derechos anulados			0,00
2. Obligazio deuzestatuak, guztira / Total obligaciones anuladas			0,00
I. EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTU EMAITZA / RESULTADO PRESUPUESTARIO DE EJERCICIOS CERRADOS (1+2)			0,00
Doikuntzak / Ajustes:			
II. DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES			
EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTU EMAITZA DOITUA / RESULTADO PRESUPUESTARIO DE EJERCICIOS CERRADOS AJUSTADO (I+II)			0,00
AURREKONTU EMAITZA DOITUA / RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO			75.484,13

10.2 2021EKO EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA EGOKITUA

Aurrekontuaren emaitza egokitua 2021 ekitaldiari dagokionez aurrekontu emaitzaren berdina da.

10.3 DIRUZAINTZAKO GERAUNA

Diruzaintzako gerakina 2021eko abenduaren 31n Partzuergoaren diruzaintzan dauden funts likidoek eratzen dute, hots, Partzuergoak kobratzeko dituen eskubideak, datozen egunetan gauzatzea espero direnak, eta Badalabekiko aitortutako obligazioak eta itxierako datan ordaintzeko daudenak hirugarrenen alde.

Diruzaintzako gerakina zehaztu aurretik indarrean dagoen araudiarekin adostasunean, aurreikuspen bat egin behar da kobratzeko falta diren kopuruak gauzatzea zaila edo ezinezkoa denean. Diru-sarreraren izaera ikusita (erakunde publiko partzuergokideen kapitalaren transferentziak), kobrantza bat ere ez da dudagarritzat edo ezinezkotzat jotzen. Jarraian "Diruzaintzako soberakinaren egoera-orria" koadroan ikus daitekeenez, diruzaintzaren gerakina positiboa da, 75.322,13 eurokoa hain zuzen.

Kontuak / Cuentas	Osagaiak / Componentes	2021/12/31 31/12/2021	
57, 556	1. (+) Fondo likidoak / Fondos líquidos		78.855,71
	2. (+) Kobratu gabeko eskubideak / Derechos pendientes de cobro		0,00
430000, 430200	(+) indarrean dagoen aurrekontukoak / del Presupuesto corriente	0,00	
431	(+) itxita dauden aurrekontuetakoak / de Presupuestos cerrados	0,00	
246, 247, 260, 265, 440, 442, 449, 456, 470, 471, 472, 537, 538, 550, 565, 566	(+) aurrekontuz kanpoko eragiketatarik eratorriakoak / de operaciones no presupuestarias	0,00	
435, 436	(-) Merkataritza-eragiketatarik eratorriakoak / de operaciones comerciales	0,00	
	3. (-) Ordaindu gabeko obligazioak Obligaciones pendientes de pago		-3.533,18
400	(-) indarrean dagoen aurrekontukoak / del Presupuesto corriente	-3.533,18	
401	(-) itxita dauden aurrekontuetakoak / de Presupuestos cerrados	0,00	
167, 168, 180, 185, 410, 412, 418, 419, 453, 456, 475, 476, 477, 517, 518, 550, 560, 561	(-) aurrekontuz kanpoko eragiketatarik eratorriakoak / de operaciones no presupuestarias	0,00	
405, 406	(-) Merkataritza-eragiketatarik eratorriakoak / de operaciones comerciales	0,00	
	4. (+) Aplikatu gabeko partidak / Partidas pendientes de aplicación		0,00
554, 559	(-) egindako kobrantzak, behin betiko aplikatu gabeak / cobros realizados pendientes de aplicación definitiva		0,00
555, 558	(+) egindako ordainketak, behin betiko aplikatu gabeak / pagos realizados pendientes de aplicación definitiva		0,00
	I. Diruzaintzako gerakina guztira / Remanente de tesorería total (1 + 2 + 3 + 4)	0,00	75.322,53
295, 298, 490, 595, 598	II. Soberako finantzaketa lotua / Exceso de financiación afectada III. Kobrantza zalantzarik gabeko saldoak / Salvos de dudoso cobro		0,00
	IV. Lotu gabeko diruzaintzako gerakina / Remanente de tesorería no afectado = (I + II + III)	0,00	75.322,53

10.4 2022KO AURREKONTUARI ATXIKI BEHARREKO AURREKONTU KREDITUAK

Aurrekontu soberakinak obligazioaren onartzearen fasera iritsi ez diren behin betiko kredituek eratzen dituzte.

Iritzi zaio 2022ko ekitaldian, 2021eko kredituen soberakinetatik 57.000 euro barneratu behar direla, xehetasun honen arabera:

Kreditu baimendua (A Fasean): 57.000 euro

- Espedientea (2021-001) 57.000 euro

Kasuan kasuko egoerari erreparatu gabe, gainontzeko kredituak baliogabetzea dagokiola iritzi zaio.

11. FINANTZA, ONDARE ETA AURREKONTU ADIERAZLEAK

Hauek dira Partzuergoaren adierazleak:

Ondare-adierazleak

- Likidezia adierazleak

Aktibo arrunta eratzen duten ondarezko elementuek pasibo arrunta zer neurritan estaltzen duten islatzen du.

LIKIDEZIA OROKORRA = Aktibo arrunta / Pasibo arrunta

LIKIDEZIA OROKORRA = 78.855,71 / 3.533,18 = **%2.231,86**

- Zorpetze-adierazleak

Pasibo galdagarriak (arruntak eta ez arruntak) ondare garbia eta guztizko pasiboarekiko duen erlazioa erakusten du.

ZORPETZEA : (Pasibo arrunta + Pasibo ez-arrunta) / Guztizko ondare garbia eta pasiboa.

ZORPETZEA = 3.533,18 / 79.017,31 = **% 4,47**

- Egitura – adierazleak

	2021	%
Ustiapeneko diru-laguntzak	103.033,29	%100
DIRU SARRERAK GUZTIRA	103.033,29	%100

Langileen gastuak	6.278,01	%22,8
▪ Soldatak eta ordainsariak	5.000	%18,16
▪ Karga sozialak	1.278,01	%4,64
○ Enpresaren konturako Gizarte Segurantzak		
○ Pertsona Fisikoen gaineko Zerga	1.200	
○ Pentsioetarako ekarpenak eta zuzkidurak		
Ustiapeneko beste gastu batzuk	21.257,62	%77,16
▪ Gestio arrunteko beste gastu batzuk		
○ Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	21.257,62	%77,16
Finantza gastuak	13,55	%0,04
GASTUAK GUZTIRA	27.549,16	%100

Ordaintzeko eta kobratzeko batez besteko epeari buruzko informazioa

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia:

- Ondasunak eta zerbitzuak: 1,2
- Inbertsioak: 0,00

Kontabilitate eta kontuen Ikuskaritza Institutuaren ebazpenaren xedapen gehigarri bakarrean jasotakoa betez, ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa dago, 2021eko kontuetan. Partzuergoa abiatu berri denez, ezinezkoa da 2020 urteko datuekin erkatzea.

	2021	
	Ondasunak eta zerbitzuak	Inbertsioak
OBBE	1,2	0,00
GUZTIRA	1,2	

2021 urtean ez da bezeroei kobratzeko zerbitzurik eskaini.

12. ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

2021eko abenduaren 31tik urteko kontu hauek sortu arte, ez da urteko kontuen edukia handitu eta aldatzeko beharra eragin duen gertaera garrantzitsurik jazo.

13. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN ETA AURREKONTU EMAITZAREN ARTEKO BATERATZEA

KONTZEPTUA	2021
ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOA	7.684,13
Ondare garbiaren gehikuntza	
Ondare-kontabilitatearen gastuak ez diren aurrekontuzko gastuen kenketa:	
Inbertsio errealak	
Ondare-kontabilitatean sarrerak ez diren aurrekontu-sarreraren kenketa:	67.800,00
Emitzei egozteko ibilgetu ez finantzarioen diru-laguntzak	
Aurrekontu gastuak ez diren ondare-kontabilitate gastuak	
Ibilgetuen amortizazioa	
EKITALDIKO AURREKONTUEN EMAITZA	75.484,13

Ondarearen emaitza ekonomikoa abenduaren 31n 75.484,13 eurokoa da.

Nik, Goiatz Oiartzabal Lakarra andreak, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren idazkariak,

ZIURTATZEN DUT

2022ko apirilaren 26an egindako bileran, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Gobernu Batzordeak, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuela:

" BIGARREN.- 2021. urteko kontu orokorra onartzea.

Behin 2021eko aurrekontu ekitaldia amaitu ondoren, Gobernu Batzordean aurkeztu behar da Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren kontu orokorra, batzordeari baitagokio hori onartzea, estatutuen 16.d) artikuluaaren arabera.

Lehendakariak 2021eko kontu orokorra aurkeztu du, aurretik batzordekideei banatu ostean. Adierazi du kontuan hartu behar dela erakundearen abian jarri den urtea izan dela, oso aurrekontu mugatuarekin; eta, bestalde, nabarmendu du egindako dokumentua egitura bat dela, eta horren gainean oinarritu ahal izango direla etorkizuneko ekitaldietako kontu orokorrak.

Kontu orokorra Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuaren lankidetzarekin eta ikuskapenarekin egin da, eta Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 122. artikuluan ezarritako epemuga iritsi aurretik egin da. Izan ere, Batzorde Betearazleak gaia aztertu zuen aurreko ostiralean egindako bileran.


Honako hauek jasotzen ditu urteko kontuak: balantzea, galeren eta irabazien kontua, aurrekontuaren likidazio orria eta memoria. Kontu orokor horrek informazioa ematen du partzuergoaren ekonomia, finantza eta ondare egoeraren, ekitaldiko ekonomia eta ondare emaitzen eta, azkenik, aurrekontuen exekuzio eta likidazioaren inguruan.

Horrenbestez, Gobernu Batzordeak, lehendakariak proposatuta eta eztabaidatu ondoren, aho batez, erabaki du:

Onartzea Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra eta erabakitzea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea. "

Eta hala jasota gera dadin, ziurtagiri hau sinatzen dut, lehendakariaren oniritziarekin, Errenterian, bi mila eta hogeita biko ekainaren 17an.

Idazkaria,



Sin.: Goiatz Oiartzabal Lakarra

Lehendakaria,



Sin.: Mikel Irizar Intxausti